

AL

Artzain-liburua

Lazarragaren eskuizkribuan artzain-liburuaren hasierako eta bukaerako orrialdeak galdu direnez, ez dakigu osorik zein luzera zuen. Hasierako zatiari dagokionez, ezin da inolako kalkulurik egin galdu denaren luzerari buruz; amaieran, ordea, pentsa genezake ez dela zati luzea galdu: gehienez ere lau orri (1155-1158), zortzi orrialde. Gainera, hasierako 1138-1141 orriak apurtuta daude, eta hor ere ez dugu testu osoa ezagutzen; are testu barruan ere galdu dira orri batzuk (1148, 1149 eta 1150). Hortaz, zatika baino ez dugu ezagutzen testua.

Patri Urkizuk *Dianea* izenburua proposatu zuen artzain-liburuarentzat, Jorge Montemayorren gaztelaniazko *Los siete libros de la Diana* (1559) liburuan oinarritua delakoan, eta eskuizkribuko poema batean *dianea* forma agertzen delakoan (izatez *dianean* ‘doanean’ aditza da poema horretan agertzen dena, eta ez izena); ez dugu uste hautu egokia izan zenik. Patxi Salaberri Muñoak, berriz, *Sirena*, *Silbero*, *Silbia eta Doristeo* izenburu gure ustez egokiagoa hobetsi du, nobelako pertsonaia nagusien izenak hartuta. Guk, oraingoz, *artzain-liburua* izen generikoarekin aipatuko dugu eskuizkribuko hasierako zati hau.

Artzain-liburuak genero arrakastatsua izan ziren Europan XVI. mendean, eta Jorge Montemayorren gaztelaniazko *Los siete libros de la Diana* (1559) Europa osoan itzuli eta imitatu zuten; badirudi ildo horretan kokatu behar dela Lazarragaren lana ere, batik bat ezagutzen den zatia kontuan hartuta, zati honetan nagusi direlako artzain-giroko pasarteak. Baina, funtsean, amodio nahasien istorioa kontatzen da (Silberok Sirena maite du, Sirenak Doristeo, Doristeok Silbia, eta Silbiak Silbero, eta amodio-kateak ez du beste alderako biderik), eta pertsonaia nagusi horiek ez dira artzainak, hiri-giroan bizi diren morroi-neskame zerbitzariak (Silbero, Sirena eta Silbia) eta zaldunak baino (Doristeo). Baina egia da guregana iritsi den testuaren zati handi batean laurak agertzen direla artzain-jantziekin, artzain bihurtuta, dela amodioaren nekeetatik ihes egiteko (Silbero), dela artzain joan den amodioaren atzetik joateko (beste hirurak). Testuaren azterketa sakonagoak erakutsi beharko du norainoko garrantzia duten testu honetan garai hartan arrakastatsu ziren beste genero edo elementu batzuek (nobela bizantziarra, zaldungo-nobela, nobela sentimentala...).

Nolanahi ere den, Silbero morroia eta Sirena neskamearen arteko harremanekin hasten da liburua: amodio-gutunak, elkarri zuzenduriko kantuak (bihuela eta arparekin)... Baina Sirenak Silberori nahi duen erantzuna ematen ez dionez, Silbero gaixotu egiten da. Nagusiak Silbiari, Sirenaren neskame-lagunari, eskatzen dio Silberoren ardura hartzeko; Silberok Silbiari eskatzen dio Sirena beregana eramateko, eta hala egiten du Silbiak, bera Silberorekin maitemindua den arren. Baina saio berrietan ere ez du Silberok Sirenarekin arrakastarik; ezta musikari-talde bat serenata bat eskaintzeko kontratatuta ere.

Orduan, Italiako Arzileo hirira doaz morroi-neskame guztiak, nagusiekin batera; han laugarren pertsonaia agertzen da: Doristeo zalduna, Silbiaz maitemindua, Sirenak maitatua; horrela, maitemin neketsuen katea osatzen da: gorago esan dugun moduan, Silberok Sirena maite du, Sirenak Doristeo, Doristeok Silbia, eta Silbiak Silbero.

Silberok, maitemina ezin pairatuz, hiritik landa-girora ihes egitea erabakitzen du, eta, horretarako, artzain bihurtzea erabakitzen du; eta hala, Sirenari bere asmoa jakinarazi ondoren, Dueroren ibaialdara iristen da, artzain-lanetan jarduteko. Silbiak ezin du Silbero ikusi gabe bizi, eta haren bila joatea erabakitzen du, artzain-mutil jantzita (Klarian izen berriarekin); beste bi artzainekin elkartzen da bidean; haiek ematen diote Silberoren berri eta hirurak abiatzen dira Silbero omen dagoen ingururantz. Gero, Doristeo da Silbia gabe ezin bizi dena eta haren atzetik joatea erabakitzen duena, hau ere artzain; eta Doristeorekin Sirena doa, zaldunaren gogoaren kontra bada ere.

Egun batean, ustekabean, laurak elkartzen dira iturri fresko baten aldean, bakoitza bere ardiekin. Elkar ezagutzean, banan-banan geratzen dira laurak konorterik gabe, maitasunaren maitasunez eta minaren minez.

Orduan, bi izaki basati beldurgarri agertzen dira, eta neska biak bahitzen dituzte. Bi mutilek erabakitzen dute elkarrekin saiatzea neskak askatzen, eta, handik bi egunera, Marteren mandataria agertzen zaie; esaten die bi bahitzaileak Narbaez gaiztoaren mutilak direla eta Konfusioko Etxera eraman dituztela Sirena eta Silbia; maiteak askatzeko zer egin behar duten ere agintzen die: berak emandako ezpatekin eta

ispiluarekin joan behar dute Konfusioko Etxera, eta, belauniko jarririk, soilik ispilura begiratu, bera agertu arte itxaron behar dute.

Hala egiten dute, eta, lau maiteminduak berbetan ari direla, Marteren mandataria bera agertzen da ezpata zorrotzarekin, eta Narbaezen mutil basatiak ihesean joatea lortzen du. Orduan, Cupido dakarren segizioa agertzen da... eta eskuizkribua moztzen da, istorioa zelan amaitzen den jakin gabe.

Testua gehienbat prosan idatzia da, baina kantu ugari tartekatu dira bertsoetan, XVI-XVII. mendeetako artzain-liburuetan ohi bezala; gainera, hiru lekutan aurkitu ditugu narratzailearen hitzak bertsoetan (AL: 1145r, AL: 1147r eta AL: 1154r-1154v).

<1138r>

bero e[¹
edan egu[
bere ugaza[
tiak bere [b
pensadu eu[
bada Silber[
idoro bag[e
du eben kar[t²
manera hon[³

hainbat eta [
neure begi[o
daukadan [p
karta honeta[
uste dot dau[
nau ezautu[
badau bere
horri mila bider na[u
kausea dan azkero[⁴
ri remedio emun jagi[⁵

¹ *bero e[*: 1138-1141 orriak apurtuta daude eta testu-zatiak baino ez dituzte. Testu-zati horiek paperean duten disposizioan ematen ahalegindu gara, eskuizkribuko lerroak ere errespetatuta, prosan eta bertsoetan diren zatiak ere bereizteko moduan. Galdu dena kalkulatzeko, kontuan izan orrialde hauetako prosako zatian, batez beste, 35-40 karaktere (espazioak barne) eta bost-sei-zazpi hitz sartu ohi direla eskuizkribuko lerro bakoitzean; orrialde hauetako poema gehienak 9/10-, 8a, 9/10-, 8a egiturakoak dira, baina badira zazpi silabako lerroak ere, eta are hamaika, hamabi edo hamalauko gutxi batzuk ere. Kako zuzenekin markatu dugu non apurtu den papera, eta kako zuzen horien ondotik idatzi ditugu erdi-apurtuta geratu diren letrak, erabat ziurak ez direlako; apurturiko zatietan, ez dugu ezer osatu ope ingenii. Lerroaren ezkerreko urratuaren ondorioz, aurreko lerroaren amaieran hitza osatu gabe geratu denean, gidoia erantsi diogu hitzari etenaren lekuan; urratua lerroaren eskuinean denean, hurrengo lerroaren hasieran, hitza nabarmenki moztuta dagoenean ere, ez dugu erantsi gidoirik.

² *kar[t*: Zaldungo-nobeletatik eta nobela sentimentaletatik hartu zuen artzain-nobelak amodio-gutuna literatura-baliabide gisa.

³ *manera hon[*: Estilo zuzenean idatziriko diskurtsoa (monologoa, elkarrizketako zati luzea, gutuna...) aurkezteko, halako aurkezpenak erabiltzen dira gaztelaniazko nobeletan eta artzain-liburuetan: “començó a hablar desta manera”, “dezía desta manera”, “començó a dezir desta manera”...

Hemen, *manera hon[etan]* horrekin, Silberok Sirenarentzat idatziriko amodio-gutunaren hasiera markatzen da, eta, hurrengo lerroan, gutunaren edukia estilo zuzenean hasten da.

⁴ *dan azkerof*: ‘denez gero’.

⁵ *emun jagi*: *Jagi*- hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkututzen dela.

hain handia dan azkero edo bes[
rik izango ezpada bere nahi begi[
esku delikaduokaz karta horri eranz[
nahi ezpadau ni zure mesedeorr[⁶
hil nadin nagoan lekurea[
<1138v>

]orren⁷

]ea Sirena⁸
]on joean⁹ a-
]nak iraku-
]n buruan
] urteten ebela
]eaz zeina eku-
]enazan ez
]i ez legian
b]ada mundu
]rik handiae-
]ui eben kar-
]urrik ezautu
]nik ezin esan
] asegin artu
]bio historieak¹⁰ ber-
]renak karteia idoro eben
]u eben manera hartan
]ori bere ezer esan baga Silbe-
]a eabilirik utra¹¹ jakiteko deseio han-
]irenak karteia hartu eben ala ez sar-
]txi eben lekura nun idoro eben
] itxi eben maneran bertan

<1139r>

zegaz utra atsegin gutxi Silberok [
ben bere bihotzean ekusirik hai[
bere gauzaetan zala hai[
Silberoren atsekabea han[d
buruko zenzuna benzidu[
hartu eben hain¹² maneraz [
di batean iratzarri ez zan [
]

⁶ *zure mesedeorr*: ‘berori’, gaztelaniazko ‘(Su, vuesa, vuestra) merced’ alegia.

⁷ *Jorren*: Ziur aski, hau da gutunaren azken lerroa, eta ondoren berriz hasiko da estilo narratiboan idatzitako kontakizuna.

⁸ *Sirena*: *Silbero* eta *Sirena* izenek ezinbestean gogorarazten dituzte Jorge de Montemayorren *La Diana* artzain-nobelako lehenengo liburuko *Sireno* eta *Sylvano*; liburu hartan, biak dira Dianarekin maitemindurik diren artzainak. Generoaren ezaugarrietako bat da izenak berrerabiltzea, bere-berean edo zertxobait aldatuta, eta izen hauen antzekoak aurkitu ditugu beste lan batzuetan ere: *el pastor Silvero* (Lope de Vega, 1588-1595, *El ganso de oro*), *Sirena* (Jerónimo Fernández, 1547, *Belianís de Grecia*), *Silvera* (Luis Gálvez de Montalvo, 1582, *El pastor de Fílida*).

⁹ *joean*: ‘zihoan’.

¹⁰ *historieak*: ‘historiak’.

¹¹ *utra*: ‘oso’.

¹² *hain*: ‘halako’.

setan ebilela Sirenagaz [

zidin ultra espantadurik¹³ [e

bere pensamentua beti ber[

la eta probaetarren¹⁴ pe[

ganik apartadu aleian¹⁵ [

biguela¹⁶ bat zeina [

hau esaten ebel[¹⁷

o[

[...]

[...]

[...]

[...]

o[

egu[

zeur[

Silbe[

<1139v>

S]irenaren berbea zegaz utra

] hartu eben esan zituan

]k enzun ebelako bada e-

]an Silbero egoala Sirena

]ilberoren aposentura utra

]az zeinak han egoan silla

] berba hoek esaten hasi

]n Silbero¹⁸ nagozu¹⁹ lehen

]rso horiek osteango²⁰ da

]pel baten zeure eskuz

] degidazula zegati

]n batzu nik bere

]gotzu erregutan²¹

]au esan da

]n eben Si-

]ean leku

]n baga

¹³ *espantadurik*: ‘harriturik, miraz gelditurik’.

¹⁴ *probaetarren*: ‘probatzearren’.

¹⁵ *apartadu aleian*: ‘apartadu al leian, aparta ahal lezan’ dukegu ziur aski.

¹⁶ *biguela*: ‘bihuela’. Gitarraren antzeko hari-instrumentua da, eta hain zuzen XVI. mendean izan zuen loraldia Iberiar Penintsulan. Lazarragaren artzain-liburu honetan, bihuela, harpa, zanpoina eta arrabita aipatzen dira, denak ere oso musika-tresna ohikoak gaztelaniazko artzain-liburuetan.

¹⁷ *hau esaten ebel[*: Estilo zuzena aurkezteko erabiltzen den formula baten itzulpena da hau ere: “acabó su canción diciendo”, “cortesmente les saludó diciendo”, “començó a hablar diciendo”... Silbero da, dirudienez, kantatzen hasiko dena. Ikusi 1138r ataleko oharra, s.v. *manera hon[*.

¹⁸ *Silbero*: Lazarragak Sirenaren ahoan ipini ditu hemendik aurrerako hitzak, estilo zuzenean.

¹⁹ *nagozu*: ‘nagokizu’.

²⁰ *osteango*: ‘gainerako, bestelako’.

²¹ *erregutan*: Hemen amaitzen dira Sirenaren hitzak.

]ti Sirenak
]ten akorda
] bat eskrebie-

]di eze ezin²²
 z]uk
]jura

<1140r>

gura dozun ni enplea nadin zure serbizioan, suplikaetan natxatzu,²³ Sirena ene laztana, nahi dakizula²⁴ gaur gabeen zeure aposentuko bentanara joaten,²⁵ eze han gura dot neuronek emun zuk agindu deustazun obrea[

badurik²⁶ bada karte[a]
 eben egoan lekurean²⁷ e[
 teti geldixe²⁸ iramo²⁹ [
 ren aposentura nun [
 rri eben Silberoren [
 rik han zioana³⁰ u[r
 eta Silberori [e
 urtengo le[
 uero bad[
 sirik sir[
 nadur[
 Silbero[
 eta jarr[
 rik Siren[
 azpian [
 netan eg[
 Sirena bent[
 anzat Silber[

<1140v>

hartu eben biguelea,³¹ eta, utra³² boz amorosoaz, hasi zan manera honetan kantaetan:³³

²² *eze ezin*: Hemen berriz ari da Silbero estilo zuzenean, Sirenarentzako gutuna idazten; dirudienez, Sirenak eskatu dio bere zortzi bertso-lerroak (AL: 1139r) paperean idazteko (*[be]rso horiek [...]* *[pa]pel baten zeure eskuz*, AL: 1139v), eta Silberok hitzordua nahi du Sirenaren leihopean, bertso-papera eskura emateko. Literatura-topikoa da, jakina, maitemindua neska maitatuaren leihopera joatea.

²³ *suplikaetan natxatzu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’.

²⁴ *nahi dakizula*: ‘zuri nahi dakizula, zuk nahi izan dezazula’.

²⁵ *joaten*: ‘joatea’, *nahi izan* aditzaren osagarria.

²⁶ *Jbadurik*: Hemen berriro hasten da estilo narratiboan idatziriko kontakizuna.

²⁷ *lekurean*: ‘lektik’.

²⁸ *geldixe*: ‘nahikoa geldi’.

²⁹ *iramo*: ‘jaurtiki’.

³⁰ *zioana*: ‘zioena, esaten zuena’.

³¹ *biguelea*: ‘bihuela’; cf. AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*.

³² *utra*: ‘oso’.

³³ *hartu eben biguelea ... manera honetan kantaetan*: Ohikoa da gaztelaniazko artzain-liburuetan, poemak txertatzen direnean, honen moldeko esaldiez aurkeztea: “Y tomando X su harpa / vihuela / zampoña / rabel comiença a cantar desta manera”. Hemen, Silbero Sirenaren leihopetik ari da kantuan, bihuelarekin; gero, Sirenak leihotik erantzungo dio, zanpoinarekin; eta Silberok berriz kantatuko du, bigarren honetan harparekin.

Poeta gatxa³⁴ idoro dozu,
Sirena, ene laztana,
r]e bentajaok³⁵ esateko,
za]toz nigana

[...]

] utra tristerik³⁶
i]k eztakarte
]ztiok ifinirik
it]xadu dei detizke³⁷
] etorririk
]ate
u]girik.

[...]

[...]

[...]

[...]

]oa
]zuzu
]txizkoak
]azu.

<1141r>

Ala bada, nik orain, Jaungoikoa,
esango dot nola tratadu nauzun.
Sirena, utra birtute handizkoa,
egizu silenzi³⁸ eskutxadu.

Silberoren³⁹ kantu dulceaz hai[
tu Sirenak harzait⁴⁰ eben e[
sentuan eukan zanpoina⁴¹ [

³⁴ *gatxa*: ‘txarra’; testuinguruaren arabera, ez da ezinezkoa esanahi positiboarekin ulertzea (‘bikaina’), baina testuinguruak ez du esanahi negatiboa ere ezinezko egiten, apaltasun erretoriko gisa ulertzen bada.

³⁵ *bentajaok*: ‘abantailok, bikaintasunok’.

³⁶ *tristerik*: Artzain-liburuan txertaturiko poema gehienak lau bertso-lerroko ahapaldiz osatuak diren arren, badira beste egitura batzuk ere: bat zortzi bertso-lerrokoa (AL: 1145v) eta bertso-lerro segida bat (AL: 1144r-v). Hemen, AL: 1141r atalean bezala, dirudienez, lau bertso-lerroko ahapaldiaren ondoren, zortzi bertso-lerrokoa dator, errimak eta lerroatek aditzera ematen dutenez. Ondoren, beste lau birezako lekua dago, gutxi gorabehera. Eta azkenik, osorik ezagutzen dugun serbentesio asonantatua (lau endekasilabo, *ABAB* errima asonantearekin).

³⁷ *dei detizke*: ‘deitu daitezke’; iduri luke oraineko potentziala dela.

³⁸ *silenzi³⁸*: ‘isilik’.

³⁹ *Silberoren*: Hemen berriz hartuko da estilo narratiboa, baina soilik Silberoren kantutik Sirenaren kanturako trantsizioa markatzeko.

⁴⁰ *harzait⁴⁰*: ‘hartzaiten, hartzen’; -n galdu da testuinguru fonetikoarengatik.

⁴¹ *zanpoina*: ‘zanpoina, artzain-txirula’, txirula-hodi askoz osatua; ohikoa da XVI. mendeko artzain-liburuetan, hain zuzen artzainen musika-tresnatzat zeukatelako. Gorago ere esan dugun bezala (AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*), Lazarragaren eskuizkribuan, zanpoina, harpa, bihuela eta arrabita agertzen dira.

utra dulzemente jaiten⁴² ha[
hau esaten ebela:⁴³

Kainadaetan harza⁴⁴ legez,
oi,⁴⁵ nago kongoxadurik,⁴⁶
ekusi inork ez nagia[
zugaz egiten ber[

Silbero, zuk bad[⁴⁷
nola zure ag[
kotalke⁴⁸ neu[
ukutu⁴⁹ ez dagid[a
Alaze⁵⁰ beti legez [
zuk erraz dasakezu⁵¹ [
zure kontra zegati [
ezer eginik ez na[

Sirenak⁵² bere kantu[
<1141v>

] eben burua bere besoaen⁵³ gainean eta Sil-
] bigueleari itxi⁵⁴ ta hartu eben berekin⁵⁵
] harpa bat, eta hasi zan bere mina Sil-
de]klaraetan, manera honetan:

N]ik esango ditudan berbaok
]go dira gutxi batzu,
]eau dodan azkero
]ditut nik komenzadu.

e]ngo ene penea
]ingo dozu donzeilea

⁴² *jaiten*: ‘jotzen’.

⁴³ *hau esaten ebela*: Formula honekin (ikus AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *hau esaten ebela*), kasu honetan, Sirenaren kantuaren hitzak aurkezten dira.

⁴⁴ *harza*: ‘hartza’.

⁴⁵ *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

⁴⁶ *kongoxadurik*: ‘estuturik, larriturik’.

⁴⁷ *bad[*: Hemen, AL: 1140v atalean bezala, dirudienez, lau bertso-lerroko ahapaldiaren ondoren, zortzi bertso-lerrokoa dator. Artzain-liburuko ahapaldien egituraz, ikusi AL: 1140v ataleko oharra, s.v. *tristerik*.

⁴⁸ *kotalke*: ‘hainbestez’; gaztelaniazko *con tal que* lokailua da.

⁴⁹ *ukutu*: ‘ukitu’.

⁵⁰ *Halaze*: ‘hala ze, hortaz’.

⁵¹ *erraz dasakezu*: ‘erraz esango duzu’ edo ‘erraz esan dezakezu’; *esan* aditzaren geroaldi edo ahalera trinkoa; testuinguru urriak ez du aukerarik ematen bietatik zein den erabakitzeke.

⁵² *Sirenak*: Berriz ere, estilo narratiboan, ondoko lerroak trantsizioko hitzak baino ez dira, orain Sirenaren kantuari Silberok eman dion erantzuna aurkezteko.

⁵³ *besoaen*: ‘besoaren’.

⁵⁴ *bigueleari itxi*: ‘bihuela utzi’; eskuizkribuan, *itxi* ‘utzi, abandonatu’ aditzak beti hartzen du osagarria datiboan.

Musika-tresnez, cf. AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*.

⁵⁵ *berekin*: ‘berekin, berarekin’.

]n erexteagati
da]la katea

b]ai izango
] atean
]an gero
]a

]z banagizu
]tati
]ne laztana
d]ot zugaiti

]k Silberoren berba⁵⁶

] bentanea, eta, Silberori

<1142r> ezer esan baga, sartu zan barrura. Silberok, ekusirik zala Sirena enojadu, eskuetan eukan harpea iramo⁵⁷ eben, hain furia handiaz eze utra⁵⁸ pedazu asko egin zan.

Eta, ala, tristeza handiaz, Silbero joan zan bere aposentura, nun hasi zan llantu handi bat egiten, hain tristeza handiaz eze enzun egien⁵⁹ guztiai emun eioan⁶⁰ tristeza handia.⁶¹ Hainbat sentidu eben, bada, Silberok Sirenak hagaz egin eben kaso gutxia,⁶² eze etorri zan heriotzako puntura.

Egun batean, bada, Silberoren ugazabak,⁶³ ikasirik⁶⁴ nola egoan Silbero gaxorik, erregutu eutsan bere emazteari eugi legiala⁶⁵ kontu handia Silberori behar ebena emaitiaz, zegaiti zan utra keridua bere ugazabaren etsean; eta etsekoandreak egin eben hala.

Silbero, bada, hobato⁶⁶ errejidu⁶⁷ zegati zan,⁶⁸ etseko andreak agindu eutsan Silbiari,⁶⁹ zeina zan Sirenaren konpainian egoana,⁷⁰ eugi legiala utra kontu handia Silbero

⁵⁶ *berba*: Lerro hau eta hurrengoak, eskuizkribuan mozturik izan arren, prosako paragrafoari dagozkio, Sirenak leihoa itxi ondoren berriz ekingo baitzaio estilo narratiboan idatzitako kontakizunari.

⁵⁷ *iramo*: ‘jaurtiki’.

⁵⁸ *utra*: ‘oso’.

⁵⁹ *enzun egien*: ‘entzun zuten’.

⁶⁰ *emun eioan*: ‘eman zion’. Ez du datibo pluraleko komunztadura (*guztiai*-rekin), ziur aski inpersonala delako.

⁶¹ *enzun egien guztiai emun eioan tristeza handia*: ‘entzun zuten guztiei sartu zitzaizen tristeza handia’.

⁶² *kasu gutxia*: ‘kasu txikia’.

⁶³ *Silberoren ugazabak*: Honen arabera, badakigu izatez Silbero ugazaba baten morroi edo zerbitzari zela, eta ez artzain.

⁶⁴ *ikasirik*: ‘jabeturik, oharturik’.

⁶⁵ *eugi legiala*: ‘eduki zezala’.

⁶⁶ *hobato*: ‘ondotxo, ongi samar’.

⁶⁷ *errejidu*: ‘gobernatu, zaindu’.

⁶⁸ *hobato errejidu zegati zan*: ‘ongi samar zaindua zelako’.

⁶⁹ *Silbiari*: *Silvia* izena asko erabili da literatura bukolikoan; ikusi, adibidez, Miguel de Cervantesen *La Galatea* (1585), Luis Gálvez de Montalvoren *El pastor de Filida* (1582) edo Cristobal Suárez de Figueroaren *La constante Amarilis* (1609). Jorge de Montemayorren *Los siete libros de la Diana* artzain-nobelan ere badira *Silvia* izeneko bi pertsonaia txiki, eta *Selvagia* izeneko pertsonaia nagusi bat (eta, Sannazaroren *Arcadia*-n, *Selvaggio* izeneko artzaina).

errejietez; zegaz utra atsegin handia hartu eben hala Silberok nola Silbiak, zegati utra on alkarri erexten.⁷¹

Egun batean, bada, Silbia joan zan Silbero bisitaetan, beti kostunbretzat eukana legez,⁷² zeinagaz atsegin handia Silberok hartu eben, zegati hain kontu handia hagaz egiten eben. Hainbat zan Silberoen deseoa Sirena ekusterren,⁷³ <1142v> eze erregutu eutsan Silbiari legiola⁷⁴ hain mesede handia, eze⁷⁵ legiola bere partez Sirenari erregutu bisitaetan etorri lekiola, zegati leukala⁷⁶ esperanza handia Jaun Zerukoagan, eze,⁷⁷ Haen Mesedea⁷⁸ serbidu izaten lizala,⁷⁹ Sirenak bisitadu balegi,⁸⁰ bertati⁸¹ osatua zala.

Silbiak, bada, ezauturik Silberoen borondatea, prometidu eutsan eze, biharamunean, sinfalta, Sirena eroango leutsala bere aposentura. Hainbat atsegin Silberok hartu eben Silbiak egin eutsan promeseaz, eze kasi eukan gatx guztia kendu jakan.

Biharamun goxean, joan zidin⁸² Silbia Sirena bisitatzen, eta, osteango⁸³ beste berbaen artean, egion erregutu legiola konpainia⁸⁴ Silbero egoan aposentura joaten; eta Sirenak esan eutsan eze atsegin lebela; zeinzuk, alkarri eskuetarik⁸⁵ eustela,⁸⁶ joan zirean Silberoen kamarara,⁸⁷ nun, sar zitezenean, utra kortesmente Silberori berba egin eutsaen; zeinak, al egian⁸⁸ kortesia eta mesura guztiaz, saludadu zituan eta eskatu zidin⁸⁹ harpa bat, zeina utra dulzero jaiten⁹⁰ hasi zan, manera honetan kantaetan ebela:

Donzeilea, zegati zaoz⁹¹
enegaz enojadurik,

⁷⁰ *agindu eutsan Silbiari, zeina zan Sirenaren konpainian egoana*: Hemen, eta gero argiago AL: 1143v atalean (*Sirena eta Silbia, bere donzeilaak*), jakinarazten da Silbia eta Sirena ere zerbitzariak direla, Silbero bezala.

⁷¹ *utra on alkarri erexten*: ‘asko irizten zioten elkarri, asko estimatzen zuten elkar’; hemen, dirudienez, kontakizunaren hariari kasu egiten badiogu, zentzu etimologikoan ulertu behar da *on erextea* ‘estimatzea, onestea, ondo gura izatea’, eta ez eskuizkribuan zehar ohikoa duen ‘maitatzea’ esanahiarekin.

⁷² *eukana legez*: ‘zeukan legez, zeukan bezala’.

⁷³ *ekusterren*: ‘ikustearren, ikusteagatik, ikusteko’.

⁷⁴ *legiola*: ‘egin ziezaiola’.

⁷⁵ *eze*: Aurreko perpauseko *legiola mesede handia* esaldiak eskatzen duen osagarri esplikatzailearen menderagailua da: ‘egin ziezaiola mesede handia ezen erregutu ziezaiola’, hots, ‘egin ziezaiola mesede handia: Sirenari erregutzea’.

⁷⁶ *leukala*: ‘zeukala’.

⁷⁷ *eze*: Aurreko perpauseko *leukala esperanza handia* esaldiak eskatzen duen osagarri esplikatzailearen menderagailua da: ‘zeukala esperantza handia ezen osatua izango zela’, hots, ‘esperantza handia zeukan: osatua izango zela’.

⁷⁸ *Haen Mesedea*: ‘hura’ errespetuzkoa, gaztelaniazko ‘Su Merced’ alegia.

⁷⁹ *serbidu izaten lizala*: ‘(Jaun Zerukoa) zerbitzen zelarik, (Jaun Zerukoak) nahi zuelarik’, hots, ‘Haren Mesedeak (Jaun Zerukoak) hala nahi zuelarik’.

⁸⁰ *bisitadu balegi*: ‘bisitatuko balu’.

⁸¹ *bertati*: ‘berehala’.

⁸² *joan zidin*: ‘joan zen’.

⁸³ *osteango*: ‘gainerako, bestelako’.

⁸⁴ *legiola konpainia*: ‘lagun egin ziezaiola’.

⁸⁵ *eskuetarik*: ‘eskuetatik’.

⁸⁶ *eustela*: ‘eusten ziotelarik’.

⁸⁷ *kamarara*: ‘ganbarara, logelara’. Eskuarki leihorik gabeko gela da, barrura ematen duena.

⁸⁸ *al egian*: ‘ahal izan zuen’; hemen balio burutua du.

⁸⁹ *eskatu zidin*: ‘eskatu zuen’.

⁹⁰ *jaiten*: ‘jotzen’.

⁹¹ *zaoz*: ‘zagoz, zaude’.

zurekin ene⁹² aitasuna⁹³
horrela anzi jakinik?⁹⁴

<1143r> Donzeilatxo linda damea,⁹⁵
flordelisea⁹⁶ zara zu;
ene penea dakusun gero,⁹⁷
arren, berba bat esazu.

Ekusirik Sirenak Silberoen platikea, hartu eben Silberok eskuetan eukan harpea, zeina jaite⁹⁸ ebela eranzun egion, manera honetan:

Jentil onbre penadua,
enegaiti kautibua,⁹⁹
zure llantu dolorosook
emaiten deustae kontentua.¹⁰⁰

Bere kantaetea Sirenak akabadurik, urten eben hain laster Silbero egoan lekurean,¹⁰¹ eze ez zan bastadu¹⁰² inor bere bihurketan.¹⁰³ Silberok hainbat sentidu eben, bada, Sirenak esan eben berbaak,¹⁰⁴ eze erori zidin¹⁰⁵ jarririk egoan silla baterean, hain hagitz¹⁰⁶ eze, Silbia itsatsi ez ballako,¹⁰⁷ ez zatean mirakuru han hila.¹⁰⁸ Baegoan, bada, Silbero hain akordu¹⁰⁹ gutxigaz, eze Silbiak uste eben eze eskuartean hilgo litzakala,¹¹⁰ harean da beregan bihurtu zeitean artean;¹¹¹ eta, destenpleak¹¹² itxi egion orduan, hasi zan Silbia Silbero konsolaetan; bada bere,¹¹³ ekusirik Silberok hain kruelmente bere Sirenak

⁹² *zurekin ene*: ‘zure eta nire’; ‘Xrekin Y’ egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.

⁹³ *aitasuna*: ‘ahaidetasuna’.

⁹⁴ *anzi jakinik*: ‘zuri ahantzirik, zuri ahazturik’; batetik *anzituren* aditzoina daukagu, eta bestetik *jaki-*.

Jaki- hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, **edin* aditzaren aldaera bipertsonala (NOR-NORI) baizik ez da.

⁹⁵ *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa; euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan.

⁹⁶ *flordelisea*: Eskuizkribuan bost bider agertzen da, hitz eder gisa dama edo dontzeilei egokitua. Euskaraz ez dugu beste inon aurkitu *flor de lis* hala erabilia, baina bai gaztelaniaz.

⁹⁷ *dakusun gero*: ‘ikusten baituzu, ikusten duzunez’.

⁹⁸ *jaite*: ‘jaiten, jotzen’; *-n* galdu da, testuinguru fonetikoarengatik.

⁹⁹ *enegaiti kautibua*: ‘enegatik gatibua, enegatik esklaboa’.

¹⁰⁰ *zure llantu dolorosook / emaiten deustae kontentua*: Maitasun gortetiarraren ezaugarriak dira hala maiteminduaren mendekotasuna nola maitasuna sufrikario gisa bizi izatea.

¹⁰¹ *lekurean*: ‘lekutik’.

¹⁰² *bastadu*: ‘nahikoa izan, gai izan’.

¹⁰³ *bere bihurketan*: ‘bera bihurketako, bera itzularazteko’.

¹⁰⁴ *berbaak*: ‘berbak’.

¹⁰⁵ *erori zidin*: Konortegabetzea maitasun gortetiarrari lotua da, negarrak, malkoak eta hasperenak bezala. AL: 1152r-1152v atalean iristen da baliabide hau gorenera, lau pertsonaia nagusiak zorabiatzen direnean: *Honela lauak eozela desmaiadurik* (AL: 1152v).

Bestalde, esanahiari dagoionean, iduri luke hemen ez dela erabat ‘jausi’, baizik eta ‘makurtu’, ia-ia jausteraino; hori eskatzen du gero datorren *hagitz* ‘asko’ modifikatzaileak.

¹⁰⁶ *hagitz*: ‘asko’; *erori* aditza modifikatzen du, hots, ‘hain asko erori zen, hain asko makurtu zen’.

¹⁰⁷ *Silbia itsatsi ez ballako*: ‘Silbia lotu ez balitzaio, Silbiak heldu ez balio’.

¹⁰⁸ *ez zatean mirakuru an hila*: ‘ez zatekeen izango mirakulu han hiltzea’.

¹⁰⁹ *akordu*: ‘konorte’.

¹¹⁰ *litzakala*: ‘zitzaiola’.

¹¹¹ *harean da beregan bihurtu zeitean artean*: ‘harik eta bere baitaratu zatekeen arte’.

¹¹² *destenpleak*: ‘ondoezak’.

¹¹³ *bada bere*: ‘hala ere’.

trataetan lebela, ez eben gura inork barbarik legion, salbo bakotzik egon baxe;¹¹⁴ eta, hala, Silbiak urten eben harean,¹¹⁵ nun <1143v> Silbero geratu zidin bakotzik eta hain konsuelo gutxigaz nola inork pensadu ezin leian; zeinak harturik biguela¹¹⁶ bat hasi zan kantaetan, manera honetan:

Esperanzeau galdu jat,
gutziz ez arren, parte bat;
neure laztanaen amorearren¹¹⁷
egin gura dot negar bat.¹¹⁸

Ai, ene desdixadua,
gaitxez rodeadua!
Kontentu uste neben orduan
oi jatort deskontentua.

Ene bihotz penadua,
egun¹¹⁹ gaxki kuradua,
egun askotan beharko dozu
zeure aldean medikua.

Akabadurik, bada, Silberok bere kantaetea, urten eben bere kamararean¹²⁰ eta igo eben bere ugazabaren aposentura, zeina idoro eben itsirik;¹²¹ eta, itaundurik etsekoai nun zan, esan eutsaen nola emazteagaz joan zidin jardin¹²² batera eta beregaz¹²³ eroan eben Sirena eta Silbia, bere donzeilaak.¹²⁴

Aditurik,¹²⁵ bada, Silberok lehen esan <1144r> dogunau, joan zidin musiko batzuen etsera, eta erregutu eusten¹²⁶ legioela lagun musika bat emaitera¹²⁷ joaten; zeinzuk esan eutsaen baietz. Eta, hala, bear eben instrumentu guztiak harturik, joan zirean, eta, heldurik Sirena eta Silbia eozen¹²⁸ lekuan,¹²⁹ hasi zirean Silberogaz joazen¹³⁰ musikoak

¹¹⁴ *salbo bakotzik egon baxe*: ‘bakarrik egon baizen, bakarrik egon baizik’.

¹¹⁵ *harean*: ‘handik’.

¹¹⁶ *biguela*: ‘bihuela’; cf. AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*.

¹¹⁷ *amorearren*: ‘amoreagatik’.

¹¹⁸ *negar bat*: ‘malko bat’. Negarrak, malkoak eta hasperenak maitasun gortetiarrari lotuak dira. Artzain-liburuetan duten lekuaz, ikusi Jové (1988).

¹¹⁹ *egun*: ‘gaur (egun)’.

¹²⁰ *kamararean*: ‘kamaratik, logelatik’; ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *kamarara*.

¹²¹ *itsirik*: ‘itxirik’.

¹²² *jardin*: XVI-XVII. mendeetako hirien laudorioetan, inguruetako baratzeak, lorategi ugariak eta arbolaz beteriko ibilbideak goraiatzaren dira beste ezer baino gehiago, nolabait izadia hirira hurbiltzeko bidea eskaintzen dutelako (cf. Cámara 2008). Kasu honetan, jardina hiritik kanpo dago (ikus beherago *joan zitezen zitudadera*, AL: 1144v), baina nolana ere, hiri-giroan garatzen da oraindik kontakizuna.

¹²³ *beregaz*: ‘beragaz, berekin, berarekin’.

¹²⁴ *donzeilaak*: ‘dontzeilak, neskameak’. Bereziki etxeoandarearen neskame lirateke Silbia eta Sirena, baina, aurrerago ikusiko denez (AL: 1147r), Silbiak ugazabari (eta ez etxeoandeari) eskatzen dio baimena etxea uzteko. Eskuizkribuan agertzen den gainerako guztietan, *dontzeila* hitzak ‘neska gazte’ adiera du (ez ‘neskame’).

¹²⁵ *Aditurik*: ‘entzunik’.

¹²⁶ *eusten*: ‘zien’.

¹²⁷ *musika bat emaitera*: ‘serenata eskaintzera’; *dar (una) música* esamoldea erabiltzen zen gaztelaniaz, XVI-XVII. mendeetan, galaiak dontzeilari leihopetik eskaintzen zion serenata aipatzeko.

¹²⁸ *eozen*: ‘egozen, zeuden’.

¹²⁹ *lekuan*: ‘lekura’, *hel(du)* ‘iritsi’ aditzaren osagarria.

hain dulzemente jaiten euren instrumentuak, eze Silberoen ugazaba eta hagaz eozen guztiak zitezen espantadu,¹³¹ eta ezin pensadu eben nogaiti edo nork emaita¹³² eben musika hoa;¹³³ eta, honetan eozela, ministrilak¹³⁴ ixildurik, hasi zirean lau musiko, utra konziertu handiaz,¹³⁵ manera honetan kantaetan:

Donzeilatxo linda damea,
flordelisea zara zu;
nik zuri on dereizut,¹³⁶ baina
zuk ni erruki ez nauzu.
Amaren seme bakotxa¹³⁷ naiz, ta,
arren, ondo har naroiizu.¹³⁸
Ama enea seme бага
zuk ifiniko al¹³⁹ dozu.
Ama eneaen seme bageaz¹⁴⁰
oi zuk zer probetxu dozu?
Lau urtebete, euren gabakin,¹⁴¹
zeure oinetan naukazu.
Ene laztana, ene lindea,
nahi dozuna egizu.
<1144v> Ene laztana, ni hilagaz¹⁴²
zuk probetxurik badozu,
ori¹⁴³ gerriko dageau, eta
bihotzeraino indazu.¹⁴⁴

Ene laztana, heriotzea
sentitzen¹⁴⁵ ez dot bapere,
atsegin eta deskansu baxe,¹⁴⁶
zu bazarade serbitzen.¹⁴⁷
Bada bere,¹⁴⁸ nahi ez neuke,
mundo guztiagaitirren,¹⁴⁹

¹³⁰ *joazen*: ‘zihoazen’.

¹³¹ *zitezen espantadu*: ‘harritu ziren, miraz gelditu ziren’.

¹³² *emaita*: ‘emaiten, ematen’; *-n* galdu da, testuinguru fonetikoaren eraginez.

¹³³ *hoa*: ‘hura’.

¹³⁴ *ministrilak*: ‘haize-instrumentuak jotzen zituzten musikariak’.

¹³⁵ *utra konziertu handiaz*: ‘oso era harmoniatsuan, ahotsen bat etortze bikainean’.

¹³⁶ *on dereizut*: ‘maite zaitut’.

¹³⁷ *bakotxa*: ‘bakarra’.

¹³⁸ *har naroiizu*: ‘har nazazu hari, harengatik, haren mesedetan’ bide da, “zuk-hari-ni” gisako egitura, hots, ‘ondo har nazazu hari (amari) minik ez egiteko’. Egitura perifrastiko hau oso iluna da.

¹³⁹ *al*: ‘dirudienez, ziur aski’; *al* honek probabilitate handia adierazten du.

¹⁴⁰ *Ama eneaen seme bageaz*: ‘ama enea seme gabe ipintzearekin’.

¹⁴¹ *Lau urtebete, euren gabakin*: Normalean egunak izaten dira beren gauekin, baina gaztelaniaz ere aurkitu dugu honen antzeko bat, XVII. mendearen hasieran: “cincuenta años con sus noches”.

¹⁴² *hilagaz*: ‘hiltzearekin’.

¹⁴³ *ori*: ‘tori, hartu’.

¹⁴⁴ *indazu*: ‘emaidazu’ esan nahi du, baina hemen ‘(bihotzeraino) sar iezadazu’ ulertu behar da.

¹⁴⁵ *sentitzen*: ‘sumatzen’ adierarekin hala *heriotzea* nola *atsegin eta deskansu* objektuak onartzen ditu *sentitzen ez dot* aditzak.

¹⁴⁶ *baxe*: ‘baizen, baizik’.

¹⁴⁷ *zu bazarade serbitzen*: ‘zuk nahi baduzu, gogoko baduzu’.

¹⁴⁸ *Bada bere*: ‘hala ere’.

¹⁴⁹ *mundo guztiagaitirren*: ‘mundo guztiagatik’.

zuregaz ene¹⁵⁰ sekretoa
deskubri lidin bapere.

Akabadurik, bada, Silberok bere musikeau, hainbat atsegin hartu eben jardinean eozenak, eze ez ostein gehiago,¹⁵¹ espezialmente Silbiak, zeinak utra on eretxan Silberori, zegati ezautu eben Silberoren kantaetea.

Akabadurik lehen esan dogun kantaeteau, Silbero eta bere lagunak joan zitezen¹⁵² zitudadera, nun Silberok emun eusten¹⁵³ hain kolazio¹⁵⁴ handia beregaz¹⁵⁵ eroan zituan musikoai, eze ezin kontadu al leidi¹⁵⁶ gizonak gurearren¹⁵⁷ bere; eta, kolazioa akabadurik, despedidu zituan musikoak, eta, hai itxi¹⁵⁸ ta joan zidin bere etsera, nun hasi zan bere erropaak¹⁵⁹ kontuz maleta baten <1145r> sarzaen, zegaiti esan eutsan ugazabak eze biharamunean joango zireala euren bjaiera, zeina zan Italiako zitudade batera, zeinari ereizan¹⁶⁰ Arcileo.¹⁶¹

Arcileoko zitudadean¹⁶²
Silbero hel zidinean,
biziko zala uste ez eben
oi inork ordu batean.

Hainbat zan, bada, Silberoren
amoremia¹⁶³ handia,
eze, ez inor ekusterren,¹⁶⁴
itsaiten¹⁶⁵ eben begiak.

Remediorik ezin lebela,¹⁶⁶
utra gaxorik ebilen;
fortunearen etsai zala
ja hasi zan sentitzen.

¹⁵⁰ *zuregaz ene*: ‘zure eta ene, zure eta nire’; ‘Xgaz Y’ egitura da, ‘Xrekin Y’ egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

¹⁵¹ *eze ez ostein gehiago*: Irakur bedi *hainbat... eze...* Hots, ‘egun horretan hartu zuten besteko atsegina ez zuten geroztik inoiz hartuko’.

¹⁵² *joan zitezen*: ‘joan ziren’.

¹⁵³ *emun eusten*: ‘eman zien’.

¹⁵⁴ *kolazio*: ‘otordu arin’.

¹⁵⁵ *beregaz*: ‘beragaz, berekin, berarekin’.

¹⁵⁶ *ezin kontadu al leidi*: ‘ezin kontatu lezake’.

¹⁵⁷ *gurearren*: ‘gura arren, nahi izan arren’.

¹⁵⁸ *hai itxi*: ‘haiei utzi, haiek utzi’.

¹⁵⁹ *erropaak*: ‘erropak’.

¹⁶⁰ *ereizan*: ‘izena zuen, deitzen zen’.

¹⁶¹ *Arcileo*: Ez dugu ezagutzen *Arcileo* edo *Arsileo* izeneko hiririk (ez baitugu uste Toscanako *Arcille* herrixkak hemen zerikusirik duenik). *Arsileo* izeneko pertsonaia agertzen da, ordea, *Belianís de Grecia* (1547) eta *Los siete libros de la Diana* (1559) liburuetan.

¹⁶² *Arcileoko zitudadean*: Hemen, ustekabeen eta ageriko arrazoi berezirik gabe, narratzailearen ahotsa, orain arte prosan ari zena, bertsotan hasi da.

¹⁶³ *amoremia*: ‘maitemina’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...); maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodioa (arrazoiak askotarikoak izan daitezke).

¹⁶⁴ *ekusterren*: ‘ikustearren, ikusteagatik, ikusteko’.

¹⁶⁵ *itsaiten*: ‘ixten’.

¹⁶⁶ *ezin lebela*: ‘ezin ukan zuelarik’.

Silbia, dama galantori,
pena handiaz bizi zan;
Silberori on deretxana¹⁶⁷
akordatzen da askotan.

<1145v> Doristeo,¹⁶⁸ zaldun gazte bat,
ebilen penaz beterik,
zegaiti utra on eretxan
Silbia donzeileari.

Sirena bere hainbeste dabil
besteok legez galdurik,¹⁶⁹
Doristeori on deretxala,
Silbero anzi jakinik.¹⁷⁰

Kupido,¹⁷¹ nola dozu horrein¹⁷² gaxki¹⁷³
zeure matraz¹⁷⁴ doraduok gobernaetan?
Zegaiti lauoi bardin¹⁷⁵ on eretxi
ez deraustezu¹⁷⁶ euren amoreetan?
Dago Sirenagaiti Silbero hilik,
Sirenak Doristeori on eretxan,
Doristeok Silbiagati asko dauko minik,
Silbiak Silberori eutsan erreguetan.¹⁷⁷

Silberok, bada, ekusirik
bere desditxa handia,
negar egiten prometidu dau,¹⁷⁸

¹⁶⁷ *deretxana*: -na kompletiboa da.

¹⁶⁸ *Doristeo*: Doristeo izeneko zaldunari (Doristeo zalduna baita, Silbero, Sirena eta Silbia zerbitzariak diren arren) izena aldatu dio egileak AL: 1152r atalean, ziur aski errakuntzaz; hortik aurrera beti deitzen dio *Dorido*.

Lope de Vegak lan askotan erabili zuen *Doristeo* izena: *El mármol de Felisardo* (1594-1598), *El amante agradecido* (1602), *La discreta enamorada* (1606-1608)... Antonio de los Caramanchesen *La pastora de Mançanares* (XVII. mendea) artzain-liburuan ere bada izen hori duen artzain bat.

Dorido izena, berriz, Mateo Alemánek erabili zuen *Guzman de Alfarachen* (1599-1604). Montemayorren *Los siete libros de la Dianan*, azkenik, *Dórida* izeneko ninfa agertzen da; izen femeninoa greziar mitologiatik dator, eta erabilia zuen Sannazarok ere *Arcadian* (1504); *Dorida* izeneko andrazkoa dago 1526ko *Polindo* zaldun-liburuan ere.

¹⁶⁹ *hainbeste dabil* / *besteok legez galdurik*: ‘besteok bezainbeste galdurik dabil’; *hainbeste galdurik* ulertu behar da.

¹⁷⁰ *anzi jakinik*: ‘hari ahantzirik, hari ahazturik’; cf. AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anzi jakinik*.

¹⁷¹ *Kupido*: Zortzi bertso-lerro hauek neurri desberdinekoak dira, aurretik eta ondotik dituztenen aldean. Aurretik eta ondotik datozenak launaka bildu behar dira, 9/10 - 8a - 9/10 - 8a egiturarekin; zortzi bertso-lerro hauek, ordea, luzeagoak dira (11/12 silaba, eta are 14) eta errimak zortzikoa biltzen du (ez lauko bi).

¹⁷² *horrein*: ‘horren’.

¹⁷³ *gaxki*: Literatura-topikoa da Cupido itsuak geziak jaurtitzean huts egitea.

¹⁷⁴ *matraz*: ‘gezi’.

¹⁷⁵ *bardin*: ‘berdin’.

¹⁷⁶ *on eretxi* / *ez deraustezu*: ‘oniriztarazi ez diezu, maitarazi ez diezu’.

¹⁷⁷ *erreguetan*: ‘erregutzen’.

¹⁷⁸ *negar egiten prometidu dau*: ‘negar egitea promestu du, negar egingo duela hitzeman du’.

bizi dan arte¹⁷⁹ guztian.

Esperanza galdu jakinik¹⁸⁰
 bizi zan, atsegin bage;
 joan gura dau lekureanik¹⁸¹
 kanpura¹⁸² bizi izaaten.¹⁸³

Lehen esan dogun konkistan¹⁸⁴ lau amadore hoek <1146r> egonik, zan lastima handia nork bere bihotzean eukan tristezea ekusten;¹⁸⁵ espezialmente Silberok, zeinak, ekusirik Sirenak besteri on eretxala, akordadu eben joaten¹⁸⁶ arzai¹⁸⁷ baten figuran¹⁸⁸ herri¹⁸⁹ haetarik,¹⁹⁰ ez hain bizi lazeradua iragaitarren.¹⁹¹

Eta, hala, egun baten, bere ugazabari lizenzia eskatu jakan¹⁹² bere herrira¹⁹³ joateko, zeinak utra¹⁹⁴ damu handia hartu eben Silberoen joateaz.¹⁹⁵ Silberok, bada, bere ugazabari lizenzia eskatu ekionean, joan zidin Sirenagana, zeinari negarrez egoala despedidu ekion;¹⁹⁶ eta, ja joateko egoan puntuan, atera eben rabel¹⁹⁷ bat bere mahukarean,¹⁹⁸ zeina jaiten ebela hasi zan negar egiten, honela:

Ordu onean gera zatez,
 donzeila linda erana;¹⁹⁹

¹⁷⁹ *arte*: ‘tarte’; izena da.

¹⁸⁰ *galdu jakinik*: ‘hari galdurik, harentzat galdurik’; *jaki*- adizkiari dagokionean, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anzi jakinik*.

¹⁸¹ *lekureanik*: ‘herrixkatik’.

¹⁸² *lekureanik / kanpura*: *lekureanik kanpura* ‘herrixkatik edo hiritik landara’ joatea Berpizkudean hain maite zuten *beatus ille* topikoaren hemengo formulazioa da: erantzunik gabeko maitasunak sorturiko kezken tokia da herrixka (*bizi lazeradua*), eta Silberok, horiei ihes egiteko, landara alde egin nahi du.

¹⁸³ *izaaten*: ‘izaten’.

¹⁸⁴ *konkistan*: ‘lehian’.

¹⁸⁵ *ekusten*: ‘ikustea’. Eskuizkribuan askotan dago aditz-izena inesiboan (-*tzen*), gaur absolutiboa erabiliko genukeen lekuan (-*tzea*).

¹⁸⁶ *akordadu eben joaten*: ‘erabaki zuen joatea’.

¹⁸⁷ *arzai*: ‘artzain’.

¹⁸⁸ *arzai baten figuran*: ‘artzain gisa, artzain itxura hartuta’. Izatez liburuko pertsonaia nagusiak ez dira artzainak, artzainen itxura eta jantziak hartzen dituzten hirikumeak baino.

¹⁸⁹ *herri*: ‘lurralde, herrialde’.

¹⁹⁰ *haetarik*: ‘haietatik’.

¹⁹¹ *iragaitarren*: ‘iragatearren, iragateagatik, iragateko’.

¹⁹² *eskatu jakan*: ‘eskatu zitzaien, eskatu zion’.

¹⁹³ *herrira*: ‘herrialdera’.

¹⁹⁴ *utra*: ‘oso’.

¹⁹⁵ *Silberoen joateaz*: ‘Silbero joateagaz’; *Silberoen* genitiboa *joateaz* aditz-izenaren subjektua da.

¹⁹⁶ *despedidu ekion*: ‘agur egin zion’.

¹⁹⁷ *rabel*: ‘arrabita’; askotan agertzen da XVI. mendeko gaztelaniazko artzain-liburuetan. Cf. *DAut*, s.v. *rabel*: “Instrumento músico pastoril. Es pequeño, de hechura como la del laúd. Compónese de tres cuerdas solas, que se tocan con arco y forman un sonido mui alto y agudo”.

¹⁹⁸ *mahukarean*: ‘mahukatik’; agian ‘zorrotik’; soinekoak mahuka zabala izan behar du hortik arrabita ateratzeko; horregatik pentsatu dugu agian arrabitaren mahuka dela, arrabita gordetzeko zorroa alegia, gaztelaniaz *manga* hitzak zituen adieretakoki bati erreparatuta (cf. *DAut*, s.v. *manga*: “Se llama también cierto género de coxín o maleta, abierta por las dos cabeceras, por donde se cierra y asegura con unos cordones”).

¹⁹⁹ *erana*: Ez dakigu zer esan nahi duen (ez euskaratik ez gaztelaniatik abiatuta), eta, akatsa balitz, zelan zuzendu beharko litzatekeen, eskuizkribuan argi-argi irakurtzen baita; ez dirudi *errana* edo *erana* transkribatzeak ere ezer konponduko lukeenik. Bertso-lerroaren silaba-kopurua eta errima kontuan izanik, *Sirena* zuzentzea litzateke aukera bat, baina ez dago horretarako ere oinarri sendorik.

noxbait-noxbait²⁰⁰ akorda zatez
zurea nola naxana.²⁰¹

Etsaitasun parebagea
nigaz zegaiti daukazu?
Muger-harrizko²⁰² bihotza baino
gogorragoa zuk dozu.

Ni honerean²⁰³ joateko
kausea oita²⁰⁴ zara zu;
Jaun Zerukoak, ene laztana,
oi degizula parkatu.

<1146v>

Arren, Sirena, ene bihotza,
suplikaetan natxatzu,²⁰⁵
nik merezidu ez badot bere,
ez nagizula anzitu.²⁰⁶

Zeruko Jaunaz²⁰⁷ oita, Sirena,
geratu, bada, zatez zu;
ni honerean banoa bere,
ene bihotza zuk dozu.

Neure begiok giaduko dot
tristezea dan herrira,
atseginik sar ez dakidan
oi bihotzeta barrura.

Despedidurik, bada, Silbero bere Sirenaganik, hartu eben arzaiaen jazteko batzu, eta hasi zan bere biajea arzaen,²⁰⁸ ponienteko aldeetara; eta, bere bidea ekarrela, hel zidin²⁰⁹ ribera utra kaudaloso baten,²¹⁰ zeinari eretxan Duero,²¹¹ Gaztelako probinzian, nun zirean utra arzai aberatsak. Ekusirik, bada, Silberok egoala utra urrun bere herrirean,²¹² akordadu²¹³ eben arzai aberaspatekin²¹⁴ jarten²¹⁵ arzaitzat. Eta hala egin eben, zegaiti,

²⁰⁰ *noxbait-noxbait*: ‘behingoz’.

²⁰¹ *nola naxana*: *Akorda(du)* ‘gogoratu’ aditzaren mendeko perpaus osagarria.

²⁰² *Muger-harrizko*: ‘suharrizko’.

²⁰³ *honerean*: ‘hemendik’.

²⁰⁴ *oita*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

²⁰⁵ *suplikaetan natxatzu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’.

²⁰⁶ *anzitu*: ‘ahantzi, ahaztu’.

²⁰⁷ *Jaunaz*: ‘Jaunagaz, Jaunarekin’; hemen *-az* bukaerak sozietiboaren balioa du.

²⁰⁸ *hasi zan bere biajea harzaen*: ‘bere bidaian abiatu zen’.

²⁰⁹ *hel zidin*: ‘heldu zen, iritsi zen’.

²¹⁰ *baten*: ‘batera’; *hel(du)* ‘iritsi’ aditza inesiboarekin.

²¹¹ *Duero*: Bidaia Italiatik abiatu bada, ondo da *ponienteko aldeetara bere bidea ekarrela* Dueroren ibaialdara iristea, lerro gutxitan jauzi handia egin duen arren. Gogoratu, bestalde, Jorge de Montemayorren *La Dianako Selvagia* ere horkoa zela: “Yo vivía en una aldea que está junto al caudaloso Duero” (*La Diana*, Libro primero).

²¹² *herrirean*: ‘herrialdetik’.

²¹³ *akordadu*: ‘erabaki’.

²¹⁴ *aberaspatekin*: ‘aberats batekin’; cf. baita *aberaspategaz (ibidem)* eta *garrazpi* (A14: 72).

²¹⁵ *jarten*: ‘jartzea’; *Akordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzaren osagarria da.

biharamunean, Askanio²¹⁶ eretxan gizon aberaspategaz²¹⁷ jarri zan, nun bere ganadua goardaetan eben.

<1147r> Silberoren²¹⁸ partierea²¹⁹
oi aditurik,²²⁰ Silbiak
damu handia oi eben hartu
bihotz berean,²²¹ menetan.²²²

Silbero baga bizi izaaten²²³
oi ezin eben sufridu;
aren atzean joateko
da lizenzia eskatu.²²⁴

Silbiak bere ugazabari
honela esan deutso:
—Romeria²²⁵ bat egiteko,
jauna, daukat nik gogo.

Honegati, serbitzen bada,²²⁶
arren, behar deust parkatu,
zegaiti bihur nadinean
serbiduko zaut,²²⁷ jauna, zu.

Silbia despedidurik bere ugazabaganik, inork ezautu ez legianzat,²²⁸ kendu eben bere jaztekoak eta hartu eben arzai baten jaztekoak, eta hasi zan bere biajea harzaen, Silbero joeala²²⁹ ekian²³⁰ lekuetati.

Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu zan arzai bigaz, zeinai Silbiak itaundu eusten nora lloazen,²³¹ zeinak eranzun eusten manera honetan:

—Arzai polita,²³² hik jakingo dok²³³ eze guek²³⁴ goazela Dueroko riberara, zegaiti enzun dogu eze Silbero deretxan arzai batek dabela lutxa²³⁵ <1147v> handiak armatu

²¹⁶ *Askanio*: Askanio izen ezaguna da, jakina, Eneasen semearen izena delako, baina literatura-tradizioan ez dugu aurkitu izen hori duen artzain askorik; bada bat Lope de Vegaren *Los amores de Albanio y Ismenia* (1590-1595) komedian.

²¹⁷ *aberaspategaz*: ‘aberats bategaz’.

²¹⁸ *Silberoren*: Hemen, ageriko arrazoirik gabe, bertsotan jarri dira narratzailearen hitzak. Horri buruz, ikusi AL: 1145r ataleko oharra.

²¹⁹ *partierea*: ‘partida, abiatzea; abiatuko zela’.

²²⁰ *aditurik*: ‘entzunik’.

²²¹ *bihotz berean*: ‘bere bihotzean’.

²²² *menetan*: ‘benetan’.

²²³ *izaaten*: ‘izaten, izatea’; hots, ‘ezin eben sufridu Silbero gabe bizi izatea’.

²²⁴ *da lizenzia eskatu*: ‘baimena eskatu du’.

²²⁵ *Romeria*: ‘erromesaldia’; zentzu figuratuan ‘bidaia’ esan nahi du, baina hemen, ziur aski, jatorrizko zentzuan ulertu behar da.

²²⁶ *serbitzen bada*: ‘(berorrek) nahi badu, gogoko badu’; ahapaldiaren bukaeran *berori*-tik *zu*-ra aldatzen da.

²²⁷ *zaut*: ‘zaitut’.

²²⁸ *legianzat*: ‘zezan’.

²²⁹ *joeala*: ‘zihoala’.

²³⁰ *ekian*: ‘zekien’.

²³¹ *lloazen*: ‘zihoazen’.

komarkaetako²³⁶ arzai guztiakin, eta dagoala denporea asignadurik egun²³⁷ seigarren eguneko;²³⁸ eta, hala, ene lagunau eta ni goaz hara, Silberoren jentilezak²³⁹ ekusterren,²⁴⁰ zegaiti utra manera handian dazauen²⁴¹ guztiok alabadu deuskue.

Silbiak Silberoren izena enzun egian orduan, hasi zan negar egiten, hain sentimentu handiaz eze, han eozen²⁴² arzaiaegati²⁴³ izan ez balitz, ez zatean asko an hila.²⁴⁴ Ekusirik, bada, Silbiagaz eozen arzaiak egoala negarrez, zitezen espantadu,²⁴⁵ eta ezin pensadu eben zer al zaatean²⁴⁶ kausea, harean da²⁴⁷ itaundu eioen artean. Zeinak manera honetan eranzun eusten:

—Zuek jakingo dozu²⁴⁸ eze Silbero zuek esan dozun arzai horregaz egon nax ni denpora handian, eta, hain da nik deutsadan amorioa handia, eze, neure herriari itxirik,²⁴⁹ nator haen eske, eta, hainbat atsegin hartu dot nun dagoan ikasiaz,²⁵⁰ eze, munduan direan rikeza guztiak emun baleustae²⁵¹ bere, ezin gehiago hartu nei.

—Sus,²⁵² bada, —esan eben arzai batak—,²⁵³ horrela dan azkero,²⁵⁴ goazen guztiok batera, eze guek al daigun lagundasunik onaena egingo deutsugu; bada bere, erregutan gagozu²⁵⁵ esan deiguzula zure izena, zegaiti hobato alkar aditu daigun.²⁵⁶

Honetan eranzun eben Silbiak:

—Zuek jakingo dozu, arzai nobleak, eze ni naxala Marsellako²⁵⁷ naturale, eta ene izena da²⁵⁸ Klarian.²⁵⁹

²³² *polita*: ‘dotorea, txukuna, ondo apaindua’.

²³³ *Arzai polita, hik jakingo dok*: Artzain-lagunek gizonekoari bezala hitz egiten diote toka (*dok*), baina zerbait berezia ikusten diote, eta horregatik esaten diote *arzai polita*. Gizonetako jantzen diren andrazkoen trabestismoa literatura-motibo ezaguna da XVI-XVII. mendeetako liburuetan (*ez*, ordea, alderantzizkoa bezain ezaguna); bada halako bat, besteak beste, Montemayorren *La Diana* artzain-nobelako bigarren liburuan (*Felismena* > *Valerio*).

²³⁴ *guk*: ‘gu’.

²³⁵ *luta*: ‘buruz burukako borroka’; lasterketa, jauzia, makila- edo haga-jaurtiketa eta buruz burukako borroka dira artzain-joko ohikoenak artzain-liburuetan, Sannazaroren *Arcadia*-tik hasi eta Montemayorren *La Diana*-raino.

²³⁶ *komarkaetako*: ‘ingurumarietako’.

²³⁷ *egun*: ‘gaur’.

²³⁸ *egun seigarren eguneko*: ‘gaurtik hasita seigarren egunerako, sei egun barrurako’.

²³⁹ *jentilezak*: ‘trebetasunak, ausardia, kemena’.

²⁴⁰ *ekusterren*: ‘ikustearren, ikusteagatik’.

²⁴¹ *dazauen*: ‘dazaguzkiten, ezagutzen dituzten’.

²⁴² *eozen*: ‘egozen, zeuden’.

²⁴³ *arzaiaegati*: ‘artzain haiengatik’.

²⁴⁴ *ez zatean asko han hila*: ‘ez zen harrigarri izango (Silbia) han hiltzea’.

²⁴⁵ *zitezen espantadu*: ‘harritu ziren, miraz gelditu ziren’.

²⁴⁶ *zaatean*: ‘zatekeen’.

²⁴⁷ *harean da*: ‘harik eta ... arte’, *harean da ... artean* egitura baita.

²⁴⁸ *jakingo dozu*: ‘jakingo duzue’.

²⁴⁹ *herriari itxirik*: ‘herrialdea utzirik’.

²⁵⁰ *ikasiaz*: ‘jabetuaz, ohartuaz, jakitun eginez’.

²⁵¹ *emun baleustae*: ‘eman balizkidate’.

²⁵² *Sus*: ‘aiei, ai ene’; gaztelaniazko interjekzioa da.

²⁵³ *arzai batak*: ‘artzainetariko batek’; mugatua da, talde ezagun bateko *bata* delako, kasu honetan Silbiarekin elkartu diren bi artzainetako bat.

²⁵⁴ *horrela dan azkero*: ‘horrela baita, horrela denez’.

²⁵⁵ *erregutan gagozu*: ‘erregutan gaude gu zuri’.

²⁵⁶ *zegaiti hobato alkar aditu daigun*: ‘hobeto elkar uler dezagun’.

—Orrela dan azkero, —esan eben arzai batak²⁶⁰ [...]

[...]

<1151r>]ren konpainian dagoan donzeila batek, zeinari deretxan Silbia, deretxula utra on, eta hainbat graduan ze, zu hona etorri zareala ikasi ta etorri gura dau zure eske; zeinari zuk gura badeutsazu on eretxi, eta anzitu²⁶¹ Sirena, on ez deretxun azkero,²⁶² nik prometietan deusut eze laster osatu zatezkeala²⁶³ daukazun gaxaesun²⁶⁴ horretarik.

Silberok lehen esan dogun berbaok enzun egianean,²⁶⁵ zidin handiro enojadu, eta, egoan lekurean²⁶⁶ jagirik, joan zidin floresta²⁶⁷ bateti aurrera, Klariani bakarrik itxita,²⁶⁸ zeinak, bakarrik geratu zala ekusen orduan,²⁶⁹ hasi zan, negarrez beterik bere begiak eukala, berba hoek esaten:

KLARIAN

Zorigatxean oi neuretako
amorea dot ezautu,
bardin²⁷⁰ gura naben azkero
honein²⁷¹ kureldo²⁷² tratadu.

Oi, amorezko errege jauna,²⁷³
suplikaetan natxatzu²⁷⁴
degiozula oi Silberori
on derextala²⁷⁵ agindu.

Doristeok, bada, ekusirik bakarrik geratu zala, bere Silbia baga, akordadu eben haen eske joaten;²⁷⁶ zeinak, partietako egoan egunean, Sirenari berba hoek egin eutsan:

²⁵⁷ *Marsellako*: Marsella ez da askotan agertzen XVI. mendeko gaztelaniazko narratiba-lanetan. Francisco Delicadoren *La Lozana Andaluza* (1528) dauka nolabaiteko presentzia, eta Lope de Vegaren *El peregrino en su patria* liburuan hain zuzen Marsellara erromesaldian doa Nise neska, mutil jantzita, baina liburua 1604an argitaratu zen.

²⁵⁸ *ene izena da*: Izen berria hartzeak pertsonaiaren eraldaketa markatzen du XVI-XVII. mendeetako literaturako trabestismo kasuetan.

²⁵⁹ *Klarian*: *Clarián* izena ez da askotan agertzen pertsonaia-izen gisa, *Clarián de Landanís*-en zaldungo-liburuetan ez bada; ziklo horretako zaldungo-liburuek (1518, 1522, 1524, 1528) arrakasta lortu zuten XVI. mendean zehar.

²⁶⁰ *batak*: Mugatzaileari buruz, ikusi goragoko oharra, s.v. *arzai batak*.

²⁶¹ *anzitu*: ‘ahantzi, ahaztu’.

²⁶² *on ez deretxun azkero*: Azalpenezko kausal gisa interpreta daiteke.

²⁶³ *osatu zatezkeala*: ‘osa zaitezkeela, osatuko zarela’.

²⁶⁴ *gaxaesun*: ‘gaixotasun’.

²⁶⁵ *enzun egianean*: ‘entzun zuenean, entzun zituenean’.

²⁶⁶ *lekurean*: ‘lekutik’.

²⁶⁷ *floresta*: ‘baso sarria’; zaldungo-liburuetan zabaldu zen, gaztelaniaz, *floresta* hitzaren erabilera.

²⁶⁸ *Klariani bakarrik itxita*: ‘Klarian bakarrik utzita’.

²⁶⁹ *ekusen orduan*: ‘ikusi zuen orduan, ikusi zuenean’.

²⁷⁰ *bardin*: ‘nonbait, dirudienez’.

²⁷¹ *honein*: ‘honen’.

²⁷² *kureldo*: ‘krudelki’.

²⁷³ *amorezko errege jauna*: Ziurrenik Kupidoz ari da, eskuizkribuko beste leku batean *amoriozko errege jauna* (A1: 33) deitzen duenaz.

²⁷⁴ *suplikaetan natxatzu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’.

²⁷⁵ *on derextala*: ‘maita nazala’.

²⁷⁶ *akordadu eben haen eske joaten*: ‘erabaki zuen haren bila joatea’.

—Ondo uste dot,²⁷⁷ Sirena, <1151v> daukazula aditurik²⁷⁸ Silbiak, bere joateagaz, niri bakarrik itxirik emun deustan pena; zeina dan hain handia, eze uste dot, iraungo baleu denpora askotan, lizateala parte²⁷⁹ niri heriotzea laster emaiteko; eta, kausa hoek guztiok nik ekusirik, dot akordadu haen eske joaten, zeina²⁸⁰ deustae esan dagoala Silbero dagoan lekuan. Honegati, zuk ezer gura badozu herri²⁸¹ haetaruz,²⁸² esan egidazu, zegati ultra borondate onez egin daidit.²⁸³

SIRENA —Ziertu²⁸⁴ bazeeki²⁸⁵ esan dozun berbaokaz egin deustazun atsekabea, sinisketan dot ez zebela²⁸⁶ esango. Bada bere, zeure borondate²⁸⁷ hori bestegan daukazuna legez,²⁸⁸ ezta mirakuru nigaz konturik eugi eza²⁸⁹. Bada bere, nik zuri deusudan amorioa²⁹⁰ hain firmea dan azkero, bazoaz munduen kabura bere, ezin itxi neidizu.²⁹¹

DORISTEO —Eztozu zerren berba horiek esan, Sirena, zegati dabe ultra probetxu gitxi egiten, ala zuretako nola enetako, zegati nigaz ezin inor lloake.²⁹²

SIRENA —Jaikoari²⁹³ nahi ez dakiola²⁹⁴ zu joan da²⁹⁵ ni heben²⁹⁶ gera nadila. Horregati, Doristeo, zoaz nora ta nundi gura dozun,²⁹⁷ eze nik itxiko ezteutsut.

Doristeok ekusirik zala imposible Sirena bereganik apartaetea, hasi zan bere bidea arzaiten, zeinak, bere begiak negarretan eukala, hasi zan berba hoek esaten:

DORISTEO
Oi,²⁹⁸ Sirena, zegaiti zatoz
oi eta ene atzean,
imposible oi dan azkero²⁹⁹
nik zuri onerextea?

²⁷⁷ *Ondo uste dot*: ‘uste dut’.

²⁷⁸ *aditurik*: ‘ulerturik’.

²⁷⁹ *lizateala parte*: ‘lagunduko lukeela, bide emango lukeela’.

²⁸⁰ *zeina*: Aurrekaria *haen* da, Silbia alegia.

²⁸¹ *herri*: ‘lurralde, herrialde’.

²⁸² *haetaruz*: ‘haetarutz, haietaruntz, haietarantz’; ez dago argi zerk eragin duen hemen adlatibo direktiboa erabiltzea; agian ulertu behar da *ezer herri haietarantz [eramatea]*.

²⁸³ *egin daidit*: ‘egingo dut’.

²⁸⁴ *Ziertu*: ‘benetan, egiazki’.

²⁸⁵ *bazeeki*: ‘bazeneki’.

²⁸⁶ *zebela*: ‘zenituela’.

²⁸⁷ *borondate*: ‘maitasun’.

²⁸⁸ *daukazuna legez*: ‘daukazunez’.

²⁸⁹ *ezta mirakuru nigaz konturik eugi eza*: ‘ez da mirakulu nirekin konturik ez edukitzea, ez da harritzekoa niri kasurik ez egitea’.

²⁹⁰ *deusudan amorioa*: ‘dizudan amodioa’.

²⁹¹ *ezin itxi neidizu*: ‘ezin utz niezazuke’.

²⁹² *ezin inor lloake*: ‘ezin izango litzateke inor joan’.

²⁹³ *Jaikoari*: ‘Jainkoari’.

²⁹⁴ *Jaikoari nahi ez dakiola*: ‘Jainkoak ez dezala nahi izan’.

²⁹⁵ *da*: ‘eta’.

²⁹⁶ *heben*: ‘hemen’.

²⁹⁷ *nora ta nundi gura dozun*: ‘nahi duzun tokira eta nahi duzun tokitik’.

²⁹⁸ *Oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi*, *oita* eta *oi eta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

²⁹⁹ *dan azkero*: ‘baita, denez’.

SIRENA

Doristeo, zegaiti zoaz
 zeurori, bada, galdurik,
 <1152r> Silbiak oita dakutsun gero³⁰⁰
 on deretxana besteri?

Honela, bada, Doristeok eta Sirenak egin eben euren biajea, harean da Silbero egoan lekuan³⁰¹ hel zitezkeano,³⁰² nun, nor bere³⁰³ ugazaba banakin³⁰⁴ [...]

Egun baten, bada, Silbero eta Silbia, Doristeo ta Sirena, lauok batera nor bere ardiakin joazela, topadu zirean iturri fresko³⁰⁵ baten aldean, nun guztiak alkar ezaturik³⁰⁶ berba egin eutsaen;³⁰⁷ espezialmente Silberok, Sirena ekusen orduan, esan eben:

—Oi, Jaun Zerukoa! Ni nun ete nago? Lo ete natz?³⁰⁸ Ala iratzarririk nago? Ezin sinistu dut neure Sirenaen aldean nagoala.

Berba hoek esan da joan zidin Sirenaren aurrera, nun belauriko jarri zan, negarrez egoala, berba hoek egite³⁰⁹ lebel:

—Oi, Sirena, zeinaen begiok direan nortegaz³¹⁰ konparaduak! Natxatzu suplikaetan³¹¹ nahi dakizula,³¹² ene peneau honein handia dan azkero, remedioa emun jagiten.³¹³

Sirenak, Silbero bere aurrean ekusen orduan, utra³¹⁴ enojadurik esan eutsan:

—Ken zatez ene begietarik,³¹⁵ zegaiti nik ezteretxut on zuri bapere baino gehiago, zegaiti ene bihotza Doridogan dago.

Silberok, hau enzun egian orduan, bere buruari itxi eutsan lurrera jausten,³¹⁶ zeinagana Silbia joan zidin lasterka, esaten eutsala:

³⁰⁰ *dakutsun gero*: ‘ikusten baituzu, ikusten duzunez’.

³⁰¹ *lekuan*: ‘lekura’.

³⁰² *harean da Silbero egoan lekuan hel zitezkeano*: ‘harik eta Silbero zegoen herrira heldu ziren arte’.

³⁰³ *nor bere*: ‘nor ere, bakoitza’.

³⁰⁴ *banakin*: Eskuizkribuan dena jarraian idatzita dago (ez dago zulorik, ez dago orbanik, ez dago urraturik...), baina zerbait (ziur aski aditza soilik) falta da testua ulergarri egiteko.

³⁰⁵ *iturri fresko*: Iturri freskoa *locus amoenus* topikoa da literaturan, eta bereziki artzain-liburuetan; batetik, *iturria* bera da topikoa elkartzeko gune gisa, eta bestetik *freskoa* izatea ere *locus amoenus* topikoaren ezaugarria da. Literatura-motibo honi buruz ikusi Lasso de la Vega (1960).

³⁰⁶ *guztiak alkar ezaturik*: Anagnorisis edo elkar-ezagutzea (eta, hemen bezala, berriz biltzea) baliabide ezaguna da kontakizunak aurrera egin dezan laguntzeko eta pasarte berriei bidea emateko.

³⁰⁷ *berba egin eutsaen*: ‘berba egin zioten elkarri’.

³⁰⁸ *natz*: ‘natza’.

³⁰⁹ *egite*: ‘egiten’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*l-* hurrengo silaban).

³¹⁰ *nortegaz*: ‘norte-izarragaz, iparrizarrarekin’.

³¹¹ *Natxatzu suplikaetan*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’.

³¹² *nahi dakizula*: ‘nahi izan dezazula’.

³¹³ *remedioa emun jagiten*: ‘(suplikatzen dizut nahi dezazula) niri erremedioa eman egiten, niri erremedioa ematea’; *jagiten* adizkiari buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *emun jagi*l.

³¹⁴ *utra*: ‘oso’.

³¹⁵ *begietarik*: ‘begietatik’.

³¹⁶ *bere buruari itxi eutsan lurrera jausten*: Konortegabetzea, gorago esan den bezala, maitasun gortetiarrari lotua da. Hemen hasita, liburuko lau pertsonaia nagusiak zorabiatuko dira banan banan.

—Jagi zatez, Silbero, horrean,³¹⁷ eta itxi egiozu horrein kureldo trataetan zabenorri,³¹⁸ eta zatoz nigana.

Silberok eranzun eutsan:

—Silbia, ken hakit horrean, zegaiti nik ezin anzitu³¹⁹ neidi³²⁰ ainbat denpora³²¹ on deretxadan gauzea.

Silbiak hau enzun egianean, desmaiadurik erori zan, zeinagana joan zidin laster Dorido, eta esan eutsan:

—Ai, Silbia, ene laztana! Akorda zatez zein on deretxudan, eta bai nola zabilzen engainadurik higuí zabenaren³²² <1152v> atzean, ene amorioau anzitu jakinik.³²³ Suplikaetan natxatzu³²⁴ degidazula remedioa emun, medezinea zu zarean gero.³²⁵

Silbiak, Doridoren berbaok aditurik,³²⁶ esa³²⁷ eutsan:

—Esan ze egidazu berba horiek, zegaiti gurago dot Silberori on deretxadala hil, eze ez ha anzitu ta bizi izan.

Doridok eukan esporzu³²⁸ guztia galdurik, etzin³²⁹ zan lurrera, utra negar asko bere begietati ezarten ebela.³³⁰ Sirenak, bada, Dorido lurrean negarrez ekusi egian orduan,³³¹ joan zidin hagana, konfiadurik respuesta hobea idoroko ebela agan hark Silberori emun eutsan³³² baino, eta esaten hasi jakan:

—Egun askotan, Dorido, esan deutsut zegaiti zabilzen on ez deretxunorren atzean galdurik, eta ez dozu sinistu izan nahi, harean da³³³ zeure begiokaz ekusi dozun artean. Bada, honela dan azkero, zeure buruori desengainadurik, nagozu³³⁴ mesede eske honerean³³⁵ aurrera on eretxi degidazula.

Doridok utra enojadurik eranzun eutsan:

³¹⁷ *horrean*: ‘hortik’.

³¹⁸ *itxi egiozu horrein kureldo trataetan zabenorri*: ‘utz ezazu horren krudelki tratatzen zaituen hori’.

³¹⁹ *anzitu*: ‘ahantzi, ahaztu’.

³²⁰ *ezin anzitu neidi*: ‘ezin ahantz nezake, ezin izango nuke ahaztu’.

³²¹ *hainbat denpora*: ‘hainbat denboratan’, “noiz” adierazteko.

³²² *higuí zabenaren*: ‘higuin zaituenaren, gorrotatzen zaituenaren’.

³²³ *anzitu jakinik*: ‘zuri ahantzirik, zuri ahazturik’; cf. AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anzi jakinik*.

³²⁴ *Suplikaetan natxatzu*: ‘suplikatzen natxaizu, erregutzen dizut’.

³²⁵ *zarean gero*: ‘zareanez’.

³²⁶ *aditurik*: ‘entzunik’.

³²⁷ *esa*: ‘esan’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik.

³²⁸ *esporzu*: ‘adore, indar’.

³²⁹ *etzin*: ‘etzin, etzan’.

³³⁰ *ezarten ebela*: ‘jaurtitzen zuelarik, isurtzen zuelarik’.

³³¹ *ekusi egian orduan*: ‘ikusi zuen orduan, ikusi zuenean’.

³³² *eutsan*: Erlatibozko perpausari erantsita artikulua izatea espero genezakeen (*eutsana*), baina agian hitz-ordenak eragin du halakorik ez izatea.

³³³ *harean da*: *harean da ... artean* egitura da, hots ‘harik eta ... arte’.

³³⁴ *nagozu*: ‘nagokizu’.

³³⁵ *honerean*: ‘hemendik’.

—O, falsa traidorea! Ken hakit neure begietarik,³³⁶ ene desditxeonen kausea hi haxan azkero; zegati hik Silberori on eretxi baeutso,³³⁷ Silbiak bere niri ezin ukatu eidan³³⁸ neure remedioa. Bada, honeinbat³³⁹ gatx hire kausaz etorri dan azkero, zegaiti ezton³⁴⁰ lotsarik berba horiek esaten gure aurrean?

Enojuzko berba hoek Sirenak bere Doridoren ahorean³⁴¹ enzunik, zidin desmaiadurik lurrera jausi. Honela lauak eozela desmaiadurik, Silberok esan eben:

SILBERO —Nagin, Sirena, remediadu!³⁴²

SIRENA —Ni Doridogaiti gaxo nax.

DORIDO —Silbiak katigaturik nauko.

SILBIA —Oita Silberok ni hil nau.

Platika hoetan lauok eozela, aditu³⁴³ eben hots handi bat kanputi³⁴⁴ etorrera, hain handia eze ultra espantadurik³⁴⁵ eozen³⁴⁶ zer al zatean³⁴⁷ <1153r> ezin pensadurik, hanean da Doridok burua goratu ta ekusi eiano³⁴⁸ salbaje³⁴⁹ terrible bien figurea, zeinzuk zirudien sua ahoetati ezarten³⁵⁰ ebela; eta euren eskuetan ekarten³⁵¹ arko bana, fletxa zorrotzakaz armaturik; eta Doridok ekusi egian orduan, esan eutsan Silberori:

—Jagi zatez horrean³⁵² laster, Silbero, zegaiti eben³⁵³ datoz salbaje handi bi ondo armaturik, guri biziok edetera.³⁵⁴

Silberok enzun egian orduan Doridoen berbaak,³⁵⁵ ultra espantadurik jagi zidin,³⁵⁶ eta hartu eben nork bere armak. Bada bere, haek ondo begiratu orduko, salbaje biak arrebatatu zituen Sirena ta Silbia, zeinzuk ultra laster ta erroitu³⁵⁷ handiaz eroan zituen florestati behera, Silberok eta Doridok remediorik emun al baga; zeinzuk geratu zitezen

³³⁶ *begietarik*: ‘begietatik’.

³³⁷ *on eretxi baeutso*: ‘oniritzi bahio, maitatu bahu’.

³³⁸ *ezin ukatu eidan*: ‘ezin ukatuko zidan [alokutiboa]’.

³³⁹ *honeinbat*: ‘honenbat, honenbeste’.

³⁴⁰ *ezton*: Hikako formak ez dira gutxi eskuizkribuan, baina soilik bi pasartetan dago aditzean markaturik genero femeninoa: hemen eta A25 poeman.

³⁴¹ *ahorean*: ‘ahotik’.

³⁴² *Nagin, Sirena, remediadu!*: ‘Sirena, erremediadu nagin!’, ‘Sirena, erremediatu nazan hik ni!’, ‘Sirena, lagundu hik niri!’.

³⁴³ *aditu*: ‘entzun’.

³⁴⁴ *kanputi*: ‘landa zabalean zehar’.

³⁴⁵ *espantadurik*: ‘harriturik, miraz gelditurik’.

³⁴⁶ *eozen*: ‘egozen, zeuden’.

³⁴⁷ *zatean*: ‘zatekeen’.

³⁴⁸ *hanean da Doridok, burua goratu ta ekusi eiano*: ‘harik eta Doridok, burua goratu eta ikusi zuen arte’.

³⁴⁹ *salbaje*: Basagizona mendebaldeko folklorea eta ikonografian ere asko agertzen da, baina bereziki XVI-XVII. mendeetako literaturan literatura-motibo bihurtzen da, askotan bigarren mailako pertsonaia gisa eta eginkizun jakin batekin: kasu honetan, “dontzeilak harrapatzen dituzten basagizonak” dira, zaldungo-liburu eta artzain-liburu askotan agertzen direnak bezalakoak.

³⁵⁰ *ezarten*: ‘jaurtitzen’.

³⁵¹ *ekarten*: ‘zekarten’.

³⁵² *horrean*: ‘hortik’.

³⁵³ *heben*: ‘hemen’.

³⁵⁴ *edetera*: ‘edekitzera, kentzera’.

³⁵⁵ *berbaak*: ‘berbak’.

³⁵⁶ *jagi zidin*: ‘jagi zen’.

³⁵⁷ *erroitu*: ‘zarata’.

espantu eta tristeza handiaz, nork bere³⁵⁸ eben oneretxia galduagaiti, eta ezin pensadu eben nuen³⁵⁹ agintez edo nora salbaje haek eroan al eukeen;³⁶⁰ eta prometidu eben biak ez alkarri itxi jagiteko,³⁶¹ harean da³⁶² Sirena ta Silbia idoro artean.

Honetan egun bat eta gau bat irago³⁶³ eben, solamente negar baxe³⁶⁴ beste gauzarik egite³⁶⁵ ez ebela; zeinzuk, bigarren egunean, zerbait jan da³⁶⁶ loak hartu zituan arbole fresko batzuen azpian, nun, lorik gozoenagaz eozen orduan, aditu eben kantaetaz etorrela hodeietati figura eder bat, zeina ekusiak emun eusten³⁶⁷ bildur handi bat; eta uste eben ze Sirena eta Silbia eroan ebenak letozela,³⁶⁸ haek bere eroatera. Bada bere, hodeietati etorrenak berba egin eusten, manera honetan:

—Ez bildurrik zeuren³⁶⁹ bihotzetan hartu, arzai amoraduak,³⁷⁰ zegaiti ni ez nator zuei gaxik egiten, daukazun³⁷¹ gax horrendako remedio emaiten baxe,³⁷² eta, hala, atenzio handiagaz aditu egidazu esan gura deutsudan berbaok. Zuek jakingo dozu eze haraenegun³⁷³ ekusi zebe³⁷⁴ salbajeak direala Narbaez³⁷⁵ enkantadorearen mutilak,³⁷⁶ zeinak bere enkantamentu andiaz <1153v> ikasi eben³⁷⁷ nola heben³⁷⁸ eozen³⁷⁹ zuen kausaz; eta, zegaiti zuek eta haek atseginik artu ez zegian,³⁸⁰ eroan dau Konfusioko Etsera,³⁸¹ nun utra katea andiakaz daukan; eta, honerean³⁸² hirugarren egunean aterako ditu buruak edetera,³⁸³ zuek sokorridu ez badagizu,³⁸⁴ nik esango deutsudan manera

³⁵⁸ *nork bere*: ‘nork ere, bakoitzak’.

³⁵⁹ *nuen*: ‘noren’.

³⁶⁰ *eukeen*: ‘zukeen’.

³⁶¹ *ez alkarri itxi jagiteko*: ‘(prometidu eben biek) ez elkarri utzi egitea, ez elkar abandonatzea’; *jagiteko* adizkiari buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *emun jagif*.

³⁶² *harean da*: *harean da ... artean* egitura da, hots ‘harik eta ... arte’.

³⁶³ *irago*: ‘igaro’.

³⁶⁴ *baxe*: ‘baizen, baizik’.

³⁶⁵ *egite*: ‘egiten’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik.

³⁶⁶ *da*: ‘eta’.

³⁶⁷ *eusten*: ‘zien’.

³⁶⁸ *letozela*: ‘zetozela’.

³⁶⁹ *zeuren*: ‘zeuen’.

³⁷⁰ *amoraduak*: ‘maiteminduak’.

³⁷¹ *daukazun*: ‘daukazuen’.

³⁷² *baxe*: ‘baizen, baizik’.

³⁷³ *haraenegun*: ‘herenegun’.

³⁷⁴ *zeben*: ‘zenituzten’.

³⁷⁵ *Narbaez*: Rodrigo de Narváez, *Historia del Abencerraje y la hermosa Jarifa* (c. 1560-1565) liburuko protagonista da XVI-XVII. mendeetako literaturako Narváez ezagunena, baina haren irudi positiboa ez dator bat hemengoarekin, *Abencerraje*-ko Narváez heroi kristau zuzen eta onbera baita, eta Lazarragaren Narbaez azti-sorgin bahitzaile gaiztoa. Pánfilo de Narváez (c.1470-1528), Indietako konkistatzaileetako bat, aipatu dute Urkizuk (2004) eta Salaberrik (2004) izen honekin erlazonaturik, izan ere zinez gaizto-irudia baitu hark, indigena artean eragindako sarraskiengatik; baina ez dugu aurkitu XVI. mendearen amaieran irudi negatibo hori hedatua zela egiaztatzen duen frogaz ziurrik.

³⁷⁶ *mutilak*: ‘morroiak, zerbitzariak’.

³⁷⁷ *ikasi eben*: ‘jabetu ziren, ohartu ziren’.

³⁷⁸ *heben*: ‘hemen’.

³⁷⁹ *eozen*: ‘egozen, zeuden’, Sirena eta Silbia, alegia.

³⁸⁰ *zegaiti zuek eta haek atseginik hartu ez zegian*: ‘zuek eta haiek atseginik hartu ez zenezaten’.

³⁸¹ *Konfusioko Etsera*: *Casa de Confusión* sintagma ez dugu askotan aurkitu XVI-XVII mendeetako literaturan, baina erabili dute gutxienez Lope de Vegak, Fray Luis de Granadak eta Antonio de Guevarak. Ziur aski Babilonia biblikoarekin lotu behar da hemen, zaldungo-liburu askotan agertzen baitira Babilonia eta Soldán de Babilonia basagizon edo erraldoi dontzeila-bahitzaileekin loturik.

³⁸² *honerean*: ‘hemendik’, Konfusioko Etxetik, alegia.

³⁸³ *edetera*: ‘edekitzera, kentzera’.

honetan. Zuek jakingo dozu³⁸⁵ eze ni bidaldu nabela bataila eta gerratako jaikoak,³⁸⁶ zeinari deretxan Marte; eta hark emun deust ezpata hoek zuendako, espiluonegaz³⁸⁷ batetan; eta dio joan zatezela Konfusioko Etsera, eta, han hel zatezenez, zeuren ezpataok eskuetan hartu ta, belauriko jarririk, espiluonetara begira zaozela;³⁸⁸ eta dakuskezun³⁸⁹ gauzagaiti ez begiok espilurean kendu, zegaiti bertati³⁹⁰ galduko zara, eta, barriz, kendu ez badagizu, ni joango nax behar dozun orduan³⁹¹ lagunketara.³⁹²

Silberok eta Doridok lehengo berbaok enzun egien orduan, utra atsegin handia hartu eben euren bihotzetan; zeinzuk, bertati nork bere espiluak eta ezpatak harturik, joan zirean Konfusioko Etsera, nun heldu zirean hirugarren egunean, nox Sirenak eta Silbiak hil behar eben. Eta, han heldurik,³⁹³ jarri zitezen begira kanpurutz,³⁹⁴ nun ekusi eben egoala Konfusioko Etsea, hain fuerte eta galanto labradurik nola ezin hainbeste munduan al zatean.³⁹⁵ Honetan eozela, aditu³⁹⁶ eben etozela jente asko deadarrez, zeinzuen erditan etozen Sirena ta Silbia, soka bategaz esku delikaduak loturik lepora,³⁹⁷ euren guardatzat sei salbaje aldeetati ekartela, zeinak pregonaetan eben Narbaezek haen kontra emun eben sentenzia, manera honetan:

<1154r>

Narbaez gizon sabioak
oita egun³⁹⁸ dau agindu
heriotzeaz donzeilaok
oi dagiela pagatu,

honezkero³⁹⁹ ez ditezen
amoreagaz⁴⁰⁰ burladu,
hoenzat kastigua⁴⁰¹ dan⁴⁰² eta
besteoenzat exenplu.

Bioen kontra probanzea⁴⁰³

³⁸⁴ *sokorridu ez badagizu*: ‘sokorritzen ez badituzue, laguntzen ez badituzue’.

³⁸⁵ *Zuek jakingo dozu*: Pasarte honek Pertseo eta Medusaren mito grekoa gogorarazten du: Pertseo heroiak Medusa munstroa hil behar du, baina haren aurpegira zuzenean begiratu gabe, harri bihurtzen baititu bere begietara begiratzen dutenak; arazo hori gainditzeko, Ateneak ispilua bezain distiratsua den ezkutua ematen dio Pertseori, eta, Medusa bizi den lekura (Gorgonen Jauregira) joanik, ispiluaren laguntzaz lortzen du Medusaren burua moztea, ispilutik zeharka begiratuta.

³⁸⁶ *jaikoak*: ‘jainkoak’.

³⁸⁷ *espiluonegaz*: *Espilu* hitzaren erreferentea zein den ez da argi pasarte honetan: badirudi ezpata bezainbeste ispilu eskaintzen zaizkiela protagonistei, zeini berea, nahiz eta hemen singularrean agertu.

³⁸⁸ *zaozela*: ‘zaude(te)la, egon zaitez(t)ela’.

³⁸⁹ *dakuskezun*: ‘ikus dezakezu(e)n’; *ekusi* aditzaren ahalera trinkoa.

³⁹⁰ *bertati*: ‘berehala’.

³⁹¹ *orduan*: ‘momentuan bertan’.

³⁹² *lagunketara*: ‘laguntzera’.

³⁹³ *han heldurik*: ‘hara heldurik, hara iritsirik’.

³⁹⁴ *kanpurutz*: ‘landa zabalerantz’.

³⁹⁵ *zatean*: ‘zatekeen’.

³⁹⁶ *aditu*: ‘entzun’.

³⁹⁷ *lepora*: ‘bizkarrera’.

³⁹⁸ *egun*: ‘gaur’.

³⁹⁹ *honezkero*: ‘hemendik aurrera’.

⁴⁰⁰ *amoreagaz*: ‘amoreaz’.

⁴⁰¹ *hoenzat kastigua*: ‘horientzat zigorra’, eta ez ‘abisua’.

⁴⁰² *dan*: ‘izan dadin’.

⁴⁰³ *probanzea*: ‘frogantza, frogatze’.

klarua dago, ziertu,⁴⁰⁴
Doridogaz Silberoren berbak⁴⁰⁵
zerren ez eben sinistu.

Alaze bada,⁴⁰⁶ zuek batera
guztiok esan egizu:
Amorekin kruel danak
honela begi pagatu.

Enzun dozun pregoeau⁴⁰⁷
egienean aditu,⁴⁰⁸
Doridok eta Silberok bere
oi ezin eben zufridu.⁴⁰⁹

Belariko⁴¹⁰ jarri zirean;
laster zitezen armatu;
espiluak harzaiterako⁴¹¹
oi dira determinadu,⁴¹²

Zeruetako Erregeari
oi dira enkomendadu
suplikaetan lizatela⁴¹³
nahi lekiela lagundu.⁴¹⁴

<1154v>

Silbero ta Dorido honela eozela, baetozen Narbaezen jentea⁴¹⁵ euren pregoea deklaratan ebela. Donzeila desdixaduak euren amoreak han ekusten orduan,⁴¹⁶ ezin zufridu eben negar egin baga egoten, zeinak berba amorosoakaz esan eben berba hoek:

—A, gizon doloraduak⁴¹⁷ eta kruelak zeuen bizioendako! Nola azartu zara⁴¹⁸ zaozen lekura etortzen, klaru dakutsun azkero⁴¹⁹ biziokaz baino gutxiagogaz pagatuko ez dozuna?⁴²⁰ Eta, asikeasi⁴²¹ hilgo zaituen azkero, inolako maneraz defendidu al bagagizu

⁴⁰⁴ *ziertu*: ‘benetan, egiazki’.

⁴⁰⁵ *Doridogaz Silberoren berbak*: ‘Doridoren eta Silberoren berbak’; ‘Xgaz Y’ egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.

⁴⁰⁶ *Halaze bada*: ‘hala ze, hortaz’.

⁴⁰⁷ *Enzun dozun pregoeau*: Hemen, ageriko arrazoi nabarmenik gabe, bertsotan jarri dira narratzailearen hitzak. Beste bitan ere hala egin du, baina hau kasu apur bat desberdina da, bera ari zelako *pregoea* bertsotan esaten (beste bietan prosatik bertsotara pasatu da).

⁴⁰⁸ *egienean aditu*: ‘entzun zutenean’.

⁴⁰⁹ *zufridu*: ‘sufritu, pairatu’.

⁴¹⁰ *Belariko*: ‘belauniko’.

⁴¹¹ *harzaiterako*: ‘hartzerako, hartzeko’.

⁴¹² *dira determinadu*: ‘erabaki dute’.

⁴¹³ *suplikaetan lizatela*: ‘suplikatzen zirela, erregutzen zutela’.

⁴¹⁴ *nahi lekiela lagundu*: ‘lagundu nahi izan liezaiekeela’.

⁴¹⁵ *baetozen Narbaezen jentea*: Dirudienetz subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura *ad sensum* da, *jentea* pluraltzat hartuta.

⁴¹⁶ *ekusten orduan*: ‘ikusi zituzten orduan, ikusi zituztenean’.

⁴¹⁷ *doloraduak*: ‘doloretuak, saminduak’.

⁴¹⁸ *azartu zara*: ‘ausartu zarete’.

⁴¹⁹ *dakutsun azkero*: ‘ikusten baituzu(e), ikusten duzu(e)nez’.

⁴²⁰ *dozuna*: -na konpletiboa da.

⁴²¹ *asikeasi*: ‘ezinbestean’; gaztelaniazko *así que así*.

emun gura deuskuen tormentu honetarik, zuen kausaz harzaiten⁴²² dogun azkero, zuek bere libertaduko zara, edo, bestela, guek⁴²³ eta zuek beharko dogu jente kruel hoen eskuetati heriotzea gustadu.⁴²⁴

Berba hoek arzai biak enzun egienean, Jaikoak⁴²⁵ daki ze atsegin gutxi euren bihotzetan hartu eben. Bada bere, Marteren mandatariak agindu eustena ez hausaitarren,⁴²⁶ ezin ezer egin eben; eta donzeilak ekustenean euren oneretxiak remediorik emaitte⁴²⁷ ez eustela, ja eozen euren esperanza galdurik. Bada bere, dios Marteren mandataria ezpata bategaz salbaje haen arteti sartu zan, ultra hagitz⁴²⁸ emuten leustela bere ezpata zorrotzagaz; zeinuk ihes egin eben, Sirenari eta Silbiari itxirik;⁴²⁹ zeinai eskuak askaetan egotela⁴³⁰ Silbero eta Dorido, enzun eben haen alderutz kantaetaz etozela gizon batzu, zeinak ekarten⁴³¹ multiltxo bat,⁴³² silla baten jarririk, ultra ponpa handiaz, zeinak eukan tafetaezko⁴³³ benda bategaz begiak itsirik eta eskuetan arko bat, saeta zorrotz bategaz armaturik; zeinuk esaten eben ultra konzer[

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “AL – Artzain-liburua (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

⁴²² *harzaiten*: ‘hartzen’.

⁴²³ *guek*: ‘guk’.

⁴²⁴ *gustadu*: ‘dastatu’.

⁴²⁵ *Jaikoak*: ‘Jainkoak’.

⁴²⁶ *hausaitarren*: ‘haustearren’.

⁴²⁷ *emaitte*: ‘emaiten’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik.

⁴²⁸ *hagitz*: ‘asko, bortizki’.

⁴²⁹ *Sirenari eta Silbiari itxirik*: ‘Sirena eta Silbia utzirik, abandonaturik’.

⁴³⁰ *zeinai eskuak askaetan egotela*: ‘zeinei eskuak askatzen zegozkielarik, zeinei eskuak askatzen zeudelarik’; ‘haiek-haiei egon’ adierazten du aditzak.

⁴³¹ *ekarten*: ‘zekarten’.

⁴³² *multiltxo bat*: Cupidoren irudi topikoa deskribatzen du, begiak itxita maitasunaren irrazionaltasuna adierazteko.

⁴³³ *tafetaezko*: ‘tafetazko’; oihal mota bat da.